



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 24a

10. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- 10-23/POR-00025. Galdera, egoitzetan, eguneko zentroetan eta abarretan tokiak ituntzeko esparru-akordioa suntsiarazteari eta horrek mendekotasun-egoeran dauden pertsonendako izanzen dituen ondorioei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (3. or.).
- 10-23/POR-00026. Galdera, urtarrilaren 14an (larunbata) Osasunaren eta Mallorca KEren arteko futbol-partidan Club Atlético Osasunaren segurtasun-zerbitzuek legezko banderak eta sinboloak kendu izanari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (4. or.).
- 10-23/POR-00027. Galdera, aurreneko elurteetan elektrizitate-hornidura bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (4. or.).
- 10-23/POR-00028. Galdera, medikuen eskusibotasuna ezabatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- 10-23/POR-00029. Galdera, Estatuari egindako ekarpenaren likidazioaren ondoriozko 137 milioien erabileraren inguruko akordioei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (5. or.).
- 10-23/POR-00030. Galdera, inbertsio zirkularrak Nafarroara erakartzeko Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuaren jokabideari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (6. or.).
- 10-23/POR-00031. Galdera, medikuen grebaren harira Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin izandako negoziazioen emaitzari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- 10-23/POR-00032. Galdera, Hitzarmen ekonomikoari dagokion oinarri-urtearen ekarpen likidoa kalkulatzeko egindako aldaketari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (7. or.).
- 10-23/POR-00033. Galdera, beken gaineko eskumenaren eskualdaketa eskatzeko gestioei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (8. or.).
- 10-23/POR-00034. Galdera, kriminalitateak Nafarroan izan duen gorakadari aurre egiteko jarduketei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- 10-23/POR-00035. Galdera, legegintzaldi honetan kirolaren alorrean gauzatutako politikaren balorazioari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (9. or.).

- 10-23/POR-00036. Galdera, herritarren biltzarra Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko Foru Legean jasotako partaidetza-organo gisa eratzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (9. or.).
- 10-23/POR-00037. Galdera, Iruñeko udal-lurzoruan etxebizitza publikoa sustatze aldera Iruñeko Udalarekin egindako hitzarmenari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00038. Galdera, bidegabeko erabileraren delitua erreformatu izanak Europako funtsen babesean eragina izan dezaketela-eta erakunde europarrek egindako ohartarazpenari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00039. Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak 2023ko plan operatiboak lantzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00040. Galdera, oinarritzko elikagaien prezioei muga jartze aldera elikagaien banaketa handian esku-hartze publikoa egiteko aukerari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00041. Galdera, Nafarroako funtzionariotzako eskusibotasuna osagarriari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (12. or.).
- 10-23/POR-00042. Galdera, zahar-etxeetako langileen greba dela-eta, Departamentuak egiten duen balorazioari eta hura ebazteko aurreikusten dituen aukerei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (13. or.).
- 10-23/POR-00043. Galdera, jakiteko zer lan egiten duen Nafarroako Gobernuak gaztediaren erronkei dagokienez. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- 10-23/POR-00044. Galdera, gazteen eta nerabeen suizidioaren arazoari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 10-21/PON-00003. Ponentzia, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren. Txostena bukatzeko epea luzatzea (15. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-23/POR-00025. Galdera, egoitzetan, eguneko zentroetan eta abarretan tokiak ituntzeko esparru-akordioa suntsiarazteari eta horrek mendekotasun-egoeran dauden pertsonendako izanen dituen ondorioei buruzkoa.***NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, egoitzetan, eguneko zentroetan eta abarretan tokiak ituntzeko esparru-akordioa suntsiarazteari eta horrek mendekotasun-egoeran dauden pertsonendako izanen dituen ondorioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Eskubide Sozialetako Departamentuak egoitzetan, eguneko zentroetan eta abarretan tokiak ituntzeko esparru-akordioa suntsiarazteari eta horrek mendekotasun-egoeran dauden pertsonendako izanen dituen ondorioei buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

## **10-23/POR-00026. Galdera, urtarrilaren 14an (larunbata) Osasunaren eta Mallorca KEren arteko futbol-partidan Club Atlético Osasunaren segurtasun-zerbitzuek legezko banderak eta sinboloak kendu izanari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, urtarrilaren 14an (larunbata) Osasunaren eta Mallorca KEren arteko futbol-partidan Club Atlético Osasunaren segurtasun-zerbitzuek legezko banderak eta sinboloak kendu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urtarrilaren 14an (larunbata) Osasunaren eta Mallorca KEren arteko futbol-partidan Club Atlético Osasunaren segurtasun-zerbitzuek legezko banderak eta sinboloak kendu izanari dagokionez, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak gertatutakoari buruz eta zer neurri hartu ditu adierazpen-askatasunari egindako irain hori berriro gerta ez dadin?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **10-23/POR-00027. Galdera, aurreneko elurteetan elektrizitate-hornidura bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, aurreneko elurteetan elektrizitate-hornidura bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun ditzan:

Nafarroara lehenengo elurteak iritsi ondoren, berriz ere, argi-indarraren horniduran mozketa larriak gertatu dira, eta horiek eragin larriak izan dituzte Nafarroako Pirinioetako zenbait udalerritan.

Aurreko elurteak gertatu zirenez geroztik, zer neurri hartu edo zer ekintza egin ziren argindararen horniduran mozketa horiek gerta ez zitezen?

Zeintzuk hartuko dira enpresa hornitzaile eta banatzaileek mozketa horiek etorkizunean ez direla gertatuko berma dezaten?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

## **10-23/POR-00028. Galdera, medikuen eskusibotasuna ezabatzeari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak medikuen eskusibotasuna ezabatzeari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuko lehendakariak benetan uste al du medikuen eskusibotasuna kentzeak osasun publikoa indartuko duela eta herritarrei ematen zaien osasun-arreta hobetuko duela?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

## **10-23/POR-00029. Galdera, Estatuari egindako ekarpenaren likidazioaren ondoriozko 137 milioien erabileraren inguruko akordioei buruzkoa.**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Estatuari egindako ekarpenaren likidazioaren ondoriozko 137 milioien erabileraren inguruko akordioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak aurreikusita al du Nafarroako Aurrekontu Orokorra onestea ahalbidetu duten talde parlamentarioekin adostea zertan gastatuko diren azken urteetan Estatuari egindako ekarpenaren likidazioaren ondoriozko 137 milioiak, eta zein izanen diren lehentasunak (Hi-

tzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordina-  
tzailean onetsi ziren)?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

## **10-23/POR-00030. Galdera, inbertsio zirkularrak Nafarroara erakartzeko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren jokabide- ari buruzkoa.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, inbertsio zirkularrak Nafarroara erakartzeko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren jokabideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak 2023ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin berri dugu EnergyLOOP konpainiak aerosorgailu-palak birziklatzeko proiektu berri-tzaile bat instalatuko duela Cortesen.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zein izan da zure Departamentuaren jokabidea era horretako inbertsio zirkularrak Nafarroara erakartzeko?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **10-23/POR-00031. Galdera, medikuen grebaren harira Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin izandako negoziazioen emaitzari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, medikuen grebaren harira Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin izandako negoziazioen emaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer emaitza izan ditu medikuen grebaren harira Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Medikuen Sindikatuak izandako negoziazioak?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **10-23/POR-00032. Galdera, Hitzarmen ekonomikoari dagokion oinarri-urtearen ekarpen likidoa kalkulatzeko egindako aldaketari buruzkoa.**

*MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera, Hitzarmen ekonomikoari dagokion oinarri-urtearen ekarpen likidoa kalkulatzeko egindako aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Zergatik aldatu da Hitzarmen ekonomikoari dagokion oinarri-urtearen ekarpen likidoaren kalkulua?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

## **10-23/POR-00033. Galdera, beken gaineko eskumenaren eskualdaketa eskatzeko gestioei buruzkoa.**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, beken gaineko eskumenaren eskualdaketa eskatzeko gestioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

1.- Zer kudeaketa egin ditu Nafarroako Gobernuak azken urtean, beken gaineko eskumenaren eskualdaketa eskatze aldera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an.

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **10-23/POR-00034. Galdera, kriminalitateak Nafarroan izan duen gorakadari aurre egiteko jarduketei buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, kriminalitateak Nafarroan izan duen gorakadari aurre egiteko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Zer jarduketa egiten ari da kontseilaria, kriminalitateak Nafarroan izan duen gorakadaren aurrean?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an.

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso



## **10-23/POR-00035. Galdera, legegintzaldi honetan kirolaren alorrean gauzatutako politikaren balorazioari buruzkoa.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, legegintzaldi honetan kirolaren alorrean gauzatutako politikaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Zer balorazio egiten du lehendakariak bere Gobernuak legegintzaldi honetan kirolaren alorrean gauzatutako politikari buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

---

## **10-23/POR-00036. Galdera, herritarren biltzarra Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko Foru Legean jasotako partaidetza-organo gisa eratzeari buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, herritarren biltzarra Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko Foru Legean jasotako partaidetza-organo gisa eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, eskatzen du datorren 2023ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzenduko zaion ahozko galdera honako hau izan dadila:

Noizko aurreikusten dute egonen dela eratuta herritarren biltzarra, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legean jasotako partaidetza-organo gisa?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## 10-23/POR-00037. Galdera, Iruñeko udal-lurzoruan etxebizitza publikoa sustatze aldera Iruñeko Udalarekin egindako hitzarmenari buruzkoa.

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko udal-lurzoruan etxebizitza publikoa sustatze aldera Iruñeko Udalarekin egindako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak ahoz erantzun dezan 2023ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran:

Zure Departamentuak jaso al du baieztatu erantzunik Iruñeko Udalaren aldetik, udal-lurzoruan etxebizitza publikoen sustapenak egiteko hitzarmena desblokeatze aldera Nasuvinsak joan den urteko azaroan eginiko premiamenduari dagokionez?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## 10-23/POR-00038. Galdera, bidegabeko erabileraren delitua erreformatu izanak Europako funtsen babesean eragina izan dezaketela-eta erakunde europarrek egindako ohartarazpenari buruzkoa.

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, bidegabeko erabileraren delitua erreformatu izanak Europako funtsen babesean eragina izan dezaketela-eta erakunde europarrek egindako ohartarazpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak lehendakariak Sánchezen Gobernuak bidegabeko erabileraren delitua erreformatu izanak Europako funtsen babesean eragina izan dezaketela-eta erakunde europarrek egindako ohartarazpenari buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## 10-23/POR-00039. Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak 2023ko plan operatiboak lantzeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak 2023ko plan operatiboak lantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Eskubide Sozialetako kontseilariari, Batzordean erantzun dezan:

Noizko aurreikusten du Departamentuak prest izanen dituela Departamentuak berak zuzentzen dituen 2023rako plan operatiboak?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## 10-23/POR-00040. Galdera, oinarrizko elikagaien prezioei muga jartze aldera elikagaien banaketa handian esku-hartze publikoa egiteko aukerari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, oinarrizko elikagaien prezioei muga jartze aldera elikagaien banaketa handian esku-hartze publikoa egiteko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarrera du Gobernuak oinarrizko elikagaien prezioei muga jarri eta jendea hobeki bizi ahal izate aldera elikagaien banaketa handian esku-hartze publikoa egiteko aukerari buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **10-23/POR-00041. Galdera, Nafarroako funtzionariotzako eskusibotasuna osagarriari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotatun handiko galdera, Nafarroako funtzionariotzako eskusibotasuna osagarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa Luisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotatun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan 2023ko urtarrilaren 26rako aurreikusitako Parlamentu honen kontroleko Osoko Bilkuran:

Funtzionariotzako eskusibotasuna dute Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatu-

tuaren 45. artikuluari jarraikiz dedikazio eskusibotiko osagarri ekonomikoa esleitu zaien lanpostuek, zeina lanpostu horien eginkizunen izaeraren arabera ezartzen den.

Lanpostu horietan dihardutenek erabateko prestasunez eta dedikazio erabateko eta osoz eman behar dituzte beren zerbitzuak, eta ezin izanen dira irabazi-asmoko beste inolako jardueratan aritu, ez sektore publikoan ez pribatuan, salbu eta unibertsitateko irakaskuntzan eta norberaren eta familiaren ondarearen administrazioan.

Egunotan, medikuen sindikatuak zenbait aldarrikapen egin ditu; besteak beste, "eskusibotasuna" kentzea, kontzeptu horregatik jasotzen duten osagarriari eutsita.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak medikuei eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzupekoak diren eta lan-arabide berari lotuta dauden gainerako langileei "eskusibotasuna" eta hari dagokion soldata-osagarria kentzeari buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

## **10-23/POR-00042. Galdera, zahar-etxeetako langileen greba dela-eta, Departamentuak egiten duen balorazioari eta hura ebazteko aurreikusten dituen aukerei buruzkoa.**

*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, zahar-etxeetako langileen greba dela-eta, Departamentuak egiten duen balorazioari eta hura ebazteko aurreikusten dituen aukerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozietako kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Joan den astean, zahar-etxeetako langileek greba egin zuten, sektore horretan Nafarroako lehen hitzarmen baterako akordioa bultzatzeko. Hori dela eta, honako galdera hau aurkezten diogu Eskubide Sozietako kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Eskubide Sozietako Departamentuak lan-gatazka horri buruz, eta hura ebazteko zer aukera aurreikusten ditu?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

## **10-23/POR-00043. Galdera, jakiteko zer lan egiten duen Nafarroako Gobernuak gaztediaren erronkei dagokienez.**

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer lan egiten duen Nafarroako Gobernuak gaztediaren erronkei dagokienez buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan 2023ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran:

Zer lan egiten du Nafarroako Gobernuak gaztediaren erronkei eta kezkei dagokienez?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

**10-23/POR-00044. Galdera, gazteen eta nerabeen suizidioaren arazoari buruzkoa.***JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gazteen eta nerabeen suizidioaren arazoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan datorren osteguneko, 2023ko urtarrilaren 26ko, Osoko Bilkuran:

Zer neurri hartu ditu zure Gobernuak gazteen eta nerabeen suizidioaren arazoari aurre egiteko?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**10-21/PON-00003. Ponentzia, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren.**

*TXOSTENA BUKATZEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adosteko ponentziaren lehendakariaren idatzia, zeinean jakinarazten baitu ponentziak ezin izanen dituela bere lanak aurreikusitako epean bukatu eta dagokion txostena burutzeko epea luzatzea eskatzen baitu,

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Ponentziaren lanak bukatzeko epea 2023ko otsailaren 28ra arte luzatzea.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

